

# OL

## HITZAURRE GISA

Asier Basurto

*“2008ko UEUko Euskararen Legeak” ikastaroko arduraduna*

*Soziolinguistika Klusterra*

Helbide elektronikoa: [asier@soziolinguistika.org](mailto:asier@soziolinguistika.org)

**S**oziolinguistika Klusterrak 2002. urtetik aurrera ia urtero antolatu du ikastaro bat Udako Euskal Unibertsitatearen udako eskaintzaren barruan. Iaz, 2008an, *“Euskararen Legeak: Esperientzia Praktikoak eta Aukerak”* izenburuarekin eman zuen. Euskararen legeei buruzkoa egitera eramán gintuzten arrazioen artean, asko aipa litezke. Hasteko, soziolinguistika-esparruko teoria nagusietan, hizkuntza baten egoera aztertzerakoan, ezinbestean kontuan hartu beharreko aspektua bezala azaltzen zaigu estatus legalarena. Horrez gain, euskararen normalkuntzaren helburuarekin bat egiten duten eragileen artean, beti pil-pilean dagoen gaia da lege-markoak dakarren baldintzapena. Arrazoi horiei EAEko Euskararen Legearen 25. urteurrena gehituta, ikastaroaren gaia aukeratzeko aitzakia emana zegoen.

Gaiari heltzeko ikuspuntua eta egitaraua diseinatzerakoan, bi helburu nagusik markatu zuten iparra. Alde batetik, euskarak bere lurraldean dituen lege-egoera desberdinak kontuan hartuta, egoera horiek hobeto ezagutzeko ahalegin bat egin nahia zegoen. Baina beste alde batetik, lege-muga horien barruan izan litezkeen aukerak ezagutzea eta praktikan jartzeko bidez eztabaidatu eta esperientziak trukatzeko ere bilatzen zen.

Bi helburu horiei begira diseinatutako ikastaroa gaiari buruzko eza-gutza eta esperientzia zabalaren pertsonen eskuetan utzi zuen Klusterrak. Bakoitzak bere esparrutik euskararen legeen gaia jorratu zuten administrazioetik, unibertsitateetik, enpresatik eta gizarte-mugimendueta-tik heldutako hizlariak. Hizlari horien ekarpenekin eta ikasleen parte hartzearekin, euskararen erabilera arautzen duten legeen eta horiek ematen dituzten aukeren azterketa interesgarria burutu zen Baionako Apez-Etxean 2008ko uztailaren 15 eta 16an.

Horregatik guztiagatik, soziolinguistika-gaietan interesa duen irakurlearengana heltzeko ikastaro hartan esandakoak BAT aldizkariaren ale honetan eskaintzea pozgarria da.

Aurreneko artikuluan, **Iñaki Agirreazkuenagak** zuzenbidearen ikuspegitik aztertu du euskararen egoera. Euskararen lurraldeetan indarrean dauden araubide juridikoen eta hizkuntzaren gizarte statusaren arteko harremanen analisia egin du.

**Battitu Coyos** ikerlariak Ipar Euskal Herriaren kasuan jartzen du arreta. Gaur egungo Frantziako legeriaren jatorria ulertzeko, aurrekariak erreparatu ditu eta lege horien oinarrian Iraultzaren aurretik nagusi zen hizkuntza-ideologiaren ezaugarriak aztertu ditu gero. Testuingurua ikusita, euskararen sustapenerako dauden zailtasunak eta aukerak baloratzuz borobildu du bere idatzia.

Nafarroa Garaian hizkuntzaren erabilera arautzeko indarrean dagoen legeriak herritarren bizimoduan eragiten duen baldintzapenez dihardu **Iulen Urbiolaren** artikulua. Lurraldea hirutan banatzean Euskararen Foru Legeak eremu horietako bakoitzean dituen ondorioak azaltzen ditu hiru nafarren biografiaren narrazioa oinarri hartuta.

Jarraian, **Paul Bilbaok**, Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren esperientziatik, administrazio publikoek euren salaketei emandako erantzunak hartzen ditu analisirako oinarritzat. Euskal Herrian dauden erakunde publikoek emaniko erantzunetan lege-oinarriei egiten zaizkien erreferentziak aipatuz, hizkuntza-eskubideen urraketa legalki babestuta dagoela argudiatzera iristen da.

Hurrengo artikulua, euskararen lege zehatz bati buruzkoa da. 2008an Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-erabilera arautzeko ateratako dekretuaren nondik norakoak azaltzen ditu **Erramun Osa** Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako Zuzendariak. Dekretua definitzeko oinarri bezala erabilitako ikerketaren emaitzekin EAEko sektore pribatuetako hizkuntza-egoeraren ezaugarri batzuk azalduz hasten da, ondoren, dekretuaren xehetasunak eman eta, bide batez, bere onurak azpimarratuz bukatzeko.

**Mikel Irizarrek** Kutxako Hizkuntza Kudeaketaren arduraren esperientziatik erreparatzen dio gaiari. Finantza-erakundearen barnera eta kanpora begirako funtzionamenduan hizkuntza-normalkuntzara bideratuta hartutako neurriak azaldu ditu. Horietatik abiatuta, hizkuntzen tratamendu egokirako irizpideak enpresen filosofian txertatu eta legeak bezeroenganako zerbitzua hobetzeko akuilu bezala erabiltzearen alde egiten du.

BAT Aldizkariak ohikoa du gai nagusia osatzen duen dossierraz gain gaurkotasuna duten bestelako artikulua ere jasotzekoa GUREAN atalean. Oraingo honetan Argitalpen Batzordeak egoki ikusi du Soziolinguistika Klusterrak antolatutako II Euskal Soziolinguistika Jardunaldiko bi saiota edukiak hona ekartzea. Jardunaldia 2009ko otsailaren 20an burutu zen Miramon Zientzia Kutxagunean, Donostian.

Nolanahi ere, iruzkin bat egin nahi genuke bi saio horien inguruan. Lehen artikulua, Vicent Partal kazetariak emaniko *Hizkuntza-hazkundera Interneten* izenburuko hitzaldian oinarritzen da eta bigarrenak *Euskararen ezagutza eta erabilera, datuek zer diote?* izenburuarekin buruturiko mahai-inguruko edukiak jaso ditu. Esan gabe doa, ezin izan dugula hitzaldi eta mahai-inguru osoak bere horretan ekarri hona, espazio-aukerari moldatu behar izan baitugu, alde batetik, eta, bestetik, ahozkotasunetik idatzizko testuetara jauzia egiterakoan ezinbesteko izan dugulako egokitzapenak egitea. Beraz, aukeratze- eta moldatze-lan horien ardura geurea izango da. Bere orijinalen ikusi eta entzun nahi duen irakurleak badu horretarako aukera, Soziolinguistika Klusterraren web gunean jarri baitira han hartutako grabazioak.

**Vicent Partalek** hizkuntzen normalkuntza osoa izan dadin, hizkuntza testuinguru globalean ikusarazi beharra argudiatu zuen katalanaren ibilbidean oinarrituz. Hizkuntza-komunitateari ziberespazioan leku bat eman eta errekonozimendu bat eskuratzek, barnera begira ere hiztunen auto-estimari dituen eraginak aipatu zituen, besteak beste.

*Euskararen ezagutza eta erabilera, datuek zer diote?* mahai-inguruan Ikastolen Konfederazioko **Itziar Elortzak**, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzako **Erramun Osak** eta **Fermin Lazkano** ikerlariak hartu zuten parte, Olatz Altunaren koordinazioarekin. Euskararen egoerari buruzko datuetatik ateratako ondorioak ikusita, zenbakiak irakurketa ezberdinetarako bide ematen dutela erakutsi zuen mintzaldiak.

*Gurean* atalari amaiera emateko **Lionel Jolyk** *Euskararen Historia Soziala* aztertzeri bideratutako Euskaltzaindiaren Etxeberri egitasmoaren nondik norakoak azaldu ditu ondorengo artikuluan. Euskaltzaindiaren ikerketa honetan erabiltzen den metodologia eta eredu teorikoaren azalpenak lanaren zorrotzasun zientifikoa azpimarratzeaz gain, emaitzekiko interesa piztuko du irakurlearengan, ziur.

Bukatzeko, berriki kaleratu den *El futuro de las lenguas. Diversidad frente a uniformidad* liburu-aipamena dugu, Andoni Barreña Salamancako irakasleak egin. Liburu gaian aditu diren hainbat idazlek munduko hizkuntza-egoerari buruz egindako hausnarketak eta emandako iritziak jasotzen dituzten artikuluz osatuta dago, Belen Urangak eta Maider Marañak buruturiko edizioan. Argitalpena hizkuntza-aniztasunaren errespetuaren eta babesaren aldeko aldarrikapena da.■